

Ireki begiak

Ez izan errealitatearen beldur, beste pertsona batzuek bizi duten pobreziaaren beldur. Kontzientzia hartu, ez begiratu beste alde batera.

Utzi ezagutu zaitzaten

Ezagutu besteek zugan zer ikusten duten, eta begiratu zer ikusten duzun, zuk, zugan. Elkartasuna, errukia, Jainkoaren maitasuna zugan bizi dira.

Jesusen begiradak mugi zaitzala

Jesusek bidegabekeriari suminduratik eta errukitik begiratzen dio, eta horrek zauriak sendatzera bultzatzen du. Aktibatu zure konpromisoa, eta ez begiratu beste alde batera: gelditu.

Begirada bideratu

Itsutasunak edo miopiak ez zaitzatela ikustea eragotzi. Utzi argia zure begietan sartzen, maitasuna eta itxaropena gauzatu daitezen.

Zuk zerikusi handia duzu

Ireki begiak, utzi Jainkoaren samurtasunak begiratu eta ukitu zaitzan, eta bizitza eta aukerak kutsatzeko miraria egingo duzu.



@CaritasGipuzkoa



facebook.com/caritasgipuzkoa



@caritas_gipuzkoa

Bizum: 38029

Zuk zerikusi handia duzu



AUKERA GARA. ITXAROPENA.
KARITATEAREN EGUNA 2023.

Maitasuna Jainkoaren dohaina da gizateria osoarentzat, gure baitan dago, eta gure bitartez plazaratzen da. **"ZUK ZERIKUSI HANDIA DUZU. AUKERA GARA. ITXAROPENA"** leloarekin ospatzen dugu **Karitatearen eguna, Corpus Eguna.**

Fededun eta ez-fededunok **partekatzen dugun bizitza sozialean parte hartzera gonbidatzen zaitugu, adimena ireki eta begirada birbideratzeko, elkarrekin,** osatzen dugun munduaren beste errealitate hori **ikusteko:** eskubide berberak eskuratu ezin dituzten pertsona askorena, arrazoi askorengatik desabantailan bizi direnena, tristuran, bakardadean eta pobrezian bizi direnena.

Karitatearen eguna ospatzea erresumako otorduan parte hartzea da, Jesusen balioekin eta haren bizimoduarekin bat egitea. Berarekin ogi eta ardo bihurtzea bizitza oparoa emateko, maitasunagatik eskaintzeko, eta agun hurkoa izateko, batez ere, gehien sufritzen dutenengandik hurbil egonez, euren anai-arrebak izanez.



Jn 6, 26:

"Bene-benetan diotsuet: nire bila zabiltzate, ez ikusi dituzuen seinaleengatik, ogia jan eta asetu zaretelako baizik".

Ikusten den errealitatea

Asko dira ametsik eta itxaropenik gabe geratu diren pertsonak eta familiak. Kaleetan eta auzoetan barrena ibiltzen dira modu anonimoan, kontabilizatzen dituzten zenbakiak bezain anonimo. Baina pertsona horietako bakoitzak badu izena eta historia; arima eta gogoa, eta, zu edo ni bezala, bizitza hobearen bila, borrokatzen eta desiratzen duten pertsonak dira.

Espainian,
4 pertsonatik bat
bazterketa egoeran bizi da:
11 milioi pertsona inguru

Biztanleen
%17k
gehiagizko gastua du
etxebizitzan

3 pertsonatik batek
pairatzen ditu eten digitalaren
ondorioak

Espainian,
3 pertsonatik batek
ez du duintasunez bizitzeko diru-sarrera nahikorik. Horietatik **%46k** elikagaietan murrizten du, **%63k** horniduretan, eta **%56k** Interneten eta telefonoan. Espainiako biztanleen **%7k** ez du inolako diru-sarrerarik

(Caritasen eta Foessa Fundazioaren datuak "Kohesio sozialaren bilakaera eta Covid-19aren ondorioak Espainian").